

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

MIRENEN LIBURUAK

Miren, Jana eta Nahia liburutegian mahai baten inguruan eseri dira.

Mahai gainean kolore askotako liburuak jarri dituzte eta hitz egiten hasi dira.



**Hiru neskak poz-pezik daude eta oso gustora
elkarrekin hitz egiten.**

Shilin neskeengana hurbildu da:

- Egunon neskak! Zer duzue hor, mahai
gainean?- esaten die Shilinek.**
- Gure liburu berriak.- erantzuten diote neskek.**
- Liburu berri hauek irakurtzeko dira?-
galdetzen die Shilinek.**
- Ez, ez dira irakurtzeko, pegatinak itsasteko
eta margozteko dira.**
- Oso ondo! Holakoak dira, nire gustuko
liburuak.- dio Shilinek.**
- Zuri irakurtzea ez zaizu asko gustatzen ezta
Shilin?- dio Mirenek.**



2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

- 1.- Miren _____ dago.
- 2.- Neskak _____ daude.
- 3.- Neskak _____ inguruan eseri dira.
- 4.- Liburuak _____ jarri dituzte.
- 5.- Liburuak _____ dira.

3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN.

Neskak jolastokian daude.

Neskek goxokiak dituzte.

EGIA	GEZURRA

Shilinek neskekin hitz egiten du.

**Shilini irakurtzea asko gustatzen
zaio.**
